



## Aurretiazko genero eraginaren txostena

### Foru Arau aurreproiektua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2021erako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen

#### 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren alde aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren alde aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.



## 2. Arau aldaketak

Foru araua aurreproiektu honek ez du inolako aldaketarik sartzen zerga araudian. Xedea du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021erako aurrekontuak onartzea.

2020ak mugarri bat jarri du munduko historian, eta, beraz, baita Gipuzkoakoan ere. COVID-19aren pandemia globalaren etorrerak errotik aldatu du mundua, ordura arte ezagutzen genuen bezala, eta haren ondorioak bizitzaren eremu guztietan nabaritzen dira.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hasiera-hasieratik hartu zuen oso konpromiso argia COVID-19aren krisiak gehien kaltetu dituen sektore edo kolektiboak defendatzeko, bai arlo soziosanitarioan, bai ekonomikoan. Desberdintasunen eta gizarte kohesioaren aurkako borroka, alde batetik, eta krisi ekonomikoari aurre egiteko lana, bestetik, izan dira Foru Aldundiaren agendaren lehentasun nagusiak azken hilabeteetan.

Politika soziala eta sustapen ekonomikoa ere gure lurraldearen eredu sozioekonomiko propioaren oinarriak dira, Gipuzkoa eredia deiturikoa, hein handi batean Gipuzkoak gaur egun duen garapen eta ongizate maila handiaren arduraduna dena. Beraz, COVID-19ak markatutako errealitate berriak ardatz estrategiko horiek finkatu besterik ez du egin, eta horrela daude jasota Gipuzkoako Foru Aldundiaren agintaldi honetarako Plan Estrategikoan.

2021ari begira, Gipuzkoako Foru Aldundiak bi fronte horietan ahaleginak bikoiztearen alde egin du, desberdintasun sozial edo ekonomikoen hazkundeak geldiarazteko eta, horrela, foru gobernu honek ezarritako funtsezko helburu estrategikorantz: Gipuzkoa desberdintasun maila txikieneko lurraldeen Europako abangoardian kokatzea edo mantentzea.



Beraz, 2021eko foru aurrekontuetan gizarte politikak eta sustapen ekonomikoa lehenesten dira, epe laburreko erantzunak (hala nola, pandemiaren ondorioetarako ahulenak diren kolektiboen defentsa) epe ertain edo luzeko neurriekin uztartuz (hala nola Gipuzkoako pandemia ondoko ekonomia-erakitzeke funtsezko proiektuen garapena).

Horretarako, eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren azken bileran lortutako akordioari esker, Gipuzkoak defizit gaitasuna izango du, betiere aurreikusitako bilketa jaitsiera konpentsatzeko, pandemiak sortutako aparteko gastuak bere gain hartzeko, jarduera ekonomikoa sustatzeko planak abian jartzeko eta etorkizuneko proiektuetan inbertitzeko.

2021eko aurrekontua emaitzetara bideratutako aurrekontu baten beharkizunei jarraituz osatu da.

Emaitzetara bideratzean, aurrekontu programek adierazleak helburuekin lotzen dituzte, eta azken horiek ekintzekin eta baliabideekin. Horrenbestez, politika publikoen multzo osoa gauzatzeko oinarrizko tresna izateaz gain, aurrekontuak plangintza eta ebaluazio sistema ere badira, aurrekontuko baliabideak lortzea espero diren emaitzekin lotzen baititu, betiere efikazia, efizientzia eta gardentasuna hobetze aldera.

Ikuspuntu horrek aukera ematen du zeharkako politikak elkarrekin uztartzeko (genero berdintasuna, hizkuntza berdintasuna eta partaidetza), eta programek politika horien garapenean duten eragina adierazten du. Indartu egiten da herritarren partaidetza, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu duen "2021eko Aurrekontu Irekiak" izeneko prozesu berria sartuta.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokor hauen helburua baliabide publikoen kudeaketa finantzario egokia lortzea da, gastu publikoaren banaketan ahalik eta efizientziarik handiena ziurtatze aldera.



Aurreko ekitaldiari dagokionez, aurrekontu osoa % 6,66 murriztu da, aurrekontu propioa %7,40 hazi da eta Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa, aldiz, %7,15 murriztu da termino homogeneoetan.

Gastu politikei dagokienez, gizarte gastuetara eta errepide bidezko bidaiarien garraiora bideratutako kredituak zabalgarritzat hartu dira, kontuan izanik gerta daitekeela haien zuzkidura nahikoa ez izatea ekitaldian zehar agertzen diren beharrei aurre egiteko, betiere azpimarratuz borondate politikoa dela kreditu horiek zuzkitzea aurrekontu beharrak estali arte.

Lurraldearen ongizatea garatzeko udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean beharrezkoa den lankidetzaren kontuan hartuta, aurrekontu hauek 40,81 milioi euroko diru laguntzak aurreikusten dituzte lurraldeko toki entitateen alde.

### **3. Genero eragina**

#### **3.1. Genero egokitasuna**

Proiektu honen helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2021. urteko aurrekontuak onartzea.

Proiektuaren amaierako hartzaileak bertako biztanle guztiak dira. Hortaz, amaierako talde hartzailea pertsona fisikoak izanik, eta xedapen normatiboak eragina izanda emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan, ondorioztatu behar da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.



## 3.2. Genero eraginaren balorazioa

### 3.2.1. Hasierako egoera

Genero Berdintasunaren Indizeak (adierazle horrek aukera ematen du gizonen eta emakumeen arteko ekitaterik eza neurtzeko haien ongizateari eta garapen pertsonalari eragiten dioten hainbat arlotan) 72,5eko balioa erakusten du Gipuzkoan 2017an. EBren barruan, eta konparazio mailan, datu horrek posizio onean kokatzen du gure lurraldea, eta Finlandiak, Frantziak, Danimarkak eta Suediak soilik gainditzen du.

Eustatek adierazle honen serie historikoari buruzko informazioa ematen du, EAE mailan bakarrik. Gipuzkoari buruzko daturik ez dagoen arren, eta aztertutako datuen arabera, oso alde gutxi daude EAEn eta Gipuzkoaren artean; beraz, EAEko bilakaeraren azterketa Gipuzkoarako baliozkotzat jo daiteke.

Horrela, EAerako azken neurketek adierazten dute ondoz ondoko aurrerapenak gertatu direla (2010ean 100etik 68,8 puntu izatetik 2017an 71,1 puntu izatera igaro da); baina, era berean, hobetzeko tarte handia dago oraindik. Osasuna dimentsioa da berdintasun osora gehien hurbiltzen dena (92,4 puntu) eta Boterea dimentsioa da genero arrakala handiena duena (58 puntu).

2020an, covid-19ak eragindako osasun-larrialdiko krisiak konfinamenduko, mugikortasuna mugatzeko eta gizartea urruntzeko ezohiko neurriak hartzea eskatu du, eta horrek pertsona guztien eguneroko bizitza eta ia mundu osoko laguntza eta produkzio-jarduera aldatu ditu. Horrek guztiak krisi ekonomiko eta sozial globala eragin du.

Krisi honen irismenari buruzko egiturazko datu eguneratuak oraindik asko ez badira ere, argi dago ez diela berdin eragin pertsona guztiei. Lehen zaugarritasun handiagoko egoera bat zuten pertsonengan eragin negatibo handiagoa izaten ari da eta izango du: lan prekarioak edo



enplegurik ez duten pertsonak, etxerik gabeko pertsonak, desgaitasuna edo gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, adinekoak, etorkinak, etab. Era berean, genero desberdintasunak azaltzen du talde horien barruan emakumeek eta neskatoket krisiaren arrisku handiagoa izatea diskriminazioari, indarkeriari eta eskubideen urraketari dagokienez.

Hori alde batera utzita, eta aurreko urteetako datuei dagokionez, EUSTATEk egiten duen "Errenta pertsonal eta familiarra"-ren arabera, 2018an Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 17.459 eurokoa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, 28.100 eurokoa (%37,9ko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %39,9koa da (10.237 euro eta 17.032 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murriztagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %23,4ak 1.500 eurotik behera jasotzen ditu, eta gizonezkoetan talde hori %13,0koa da. Ia emakumeen erdiak (%46,7) urtean 12.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %25,4 diren bitartean.

Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonezkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonezkoek baino. Horrela, eta EUSTATEN Biztanleria Jardueraren Araberako datuetan ikusten da 2019an 20 eta 64 urte bitarteko emakumeen okupazio tasa %70,8koa izan zela, gizonezkoena %79,2koa izan zen bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, emakumeen langabezia tasa 2019an %7,9koa izan zen, gizonena %6,8a izan zen bitartean.

Era berean, emakumeak dira nagusi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (SBE) titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2020ko azaroko datuen arabera, Gipuzkoan SBEa jasotzen duten pertsonen %57,8a emakumeak dira.

Nabarmentzeko modukoa da pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia



den etxeetan. Horrela, "Gipuzkoako pobreziaren eta bazterkeriaren inkesta, 2017/2018" argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekarietatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan. Horrela, pobrezia erlatiboaren portzentajea handiagoa da emakumeetan (%17,3) gizonezkoetan baino (%15,5). Eta alde hori handitu egiten da emakumezkoa denean etxeko oinarrizko pertsona .

Pobrezia eta bazterketa arriskua neurtzen duen AROPE tasaren arabera (diru-sarrerara apalak, eskasia material larria eta lan intentsitate apala) emakumezkoen %19,7a dago egoera horietako bat jota egoteko arriskuan, gizonezkoen %18,7aren aldean. Eta emakumezkoak buru dituzten etxeetan, bertan bizi diren %25,0ek dute arrisku hori, gizonezkoak buru direnean portzentaje hori %17,3ra jaisten den bitartean.

### **3.2.2 Aztertutako neurriak**

2021eko aurrekontu proiektu honetako programak genero ikuspegitik aztertu dira. Programa horiek sailkatuta daude eragin handikoak, eragin ertainekoak eta eragin txikikoak bezala.

Azterketa eragin handiko eta ertainetara mugatu da. Azkenean, 34 programa aztertu dira, aurrekontu propio osoaren %62,3. Horrela, kudeaketako aurrekontu propioa 940 milioi eurokoa bada, aztertutako 34 programen zenbatekoa 586 milioikoa da. Horietatik, 23 programa garrantzi handikoak dira generoaren ikuspegitik eta kudeatutako gastua 440 milioikoa da (%46,8). Bestalde, garrantzi ertaina duten beste 11 programak kudeatutako gastua 146 milioikoa da (%15,5).

Zenbateko horiek ikusita, esan dezakegu, programa horiek ondo ordezkatzeko dituztela foru aldunditik bultzatutako politika publikoak.



### 3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

Aurrekontu horien eragina genero aldetik zehaztasun handiagoarekin egiten da proiektuarekin batera doan txostenean: "2021eko Aurrekontuak generoaren ikuspegitik duen eraginaren azterketa – Txosten exekutiboa".

Nahiz eta txosten horretan programa bakoitzaren datuak eta aurrekontu zenbatekoak agertzen dira sexuaren arabera bereizita, horiek ez dute balio desberdintasunak genero ikuspegitik aztertzeko eta identifikatzeko. Programak garrantziaren arabera kategorizatzeaz gain, beharko litzateke:

- programa bakoitzaren jarduketa eremuko abiapuntu egoera aztertu.
- programa bakoitzean garatzen diren neurriak kontuan hartu eta aztertu neurri horiek benetan laguntzen duten genero estereotipo eta eginkizun sozialak hausten.
- eragin negatiboa izango dutela aurreikusten den programen kasuan, berdintasunaren aldeko neurri zuzentzaile zehatzak identifikatu.

Horrela soilik azter liteke foru arau proiektu honek zenbateraino erantzuten dien identifikatutako desberdintasunei eta programa bakoitzean esleitutako jarduerak eta zenbatekoek emakumeen eta gizonen egoeran eta berdintasunean izango lituzketen ondorioei.

Azterketa hori egin ahal izateko, hobetu egin beharko litzateke aurrekontu programa bakoitzaren informazio bilketa. Eta horren haritik, hobekuntza prozesu bati hasiera eman zaio, aurrekontuen genero eragina aurretiaz ebaluatzeko txostena osatzeko helburuarekin. Prozesu horrek mugarri hauek ditu:





- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean eta "GFAREN lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeko bidean aurrera eginez" helburuaren barruan, horri buruzko berariazko ekintzak sartzea. Ekintza horien artean, nabarmentzekoak dira:
  - Berrikustea, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen esperientziatik abiatuta, araudiaren genero eragina ebaluatzeko aurretiazko txostenak egiteko prozedura.
  - Aurrera egitea Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko lan metodologiaren hobekuntzan.

Hobekuntza prozesuak honako hauek bete beharko ditu:

- Programa bakoitza genero ikuspegitik aztertzea, dauden arrakalak antzemateko.
- Ekitaldian aplikatu beharreko neurri zuzentzaile zehatzak finkatzea.
- Neurri zuzentzaileak ebaluatzeko mekanismoak finkatzea.

Ibilbide luzeko prozesua da, eta 2020an plan pilotu batekin hastea aurreikusten zen, Plan Estrategikoak markatutako lehentasunen barruan zeuden aurrekontu programa jakin batzuk hautatuta. Hala ere, covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz, aurreikusi gabeko jarduketa askori aurre egin behar izan zaie, lehentasunak aldatu dira ... eta, horregatik, ezin izan da garatu aurrekontuen genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena hobetzeko prozesu hori.



Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu egin dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak. Alde batetik, Ekonomi Ituanren 3. artikulua ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak. Eta bestalde, ordenamendu juridikoko beste arau batzuetan espresuki zehaztuta daudelako errespetatu behar direnak.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 18a

io  
Xaw

**Sin.: José Antonio Lapeira Oyarzabal  
AZTERLANETAKO ATALBURUA**